

## **NAFARROAKO ESTATUA, EUSKAL ESKOLA NAZIONALA, IKASTOLA**

Mirari Bereziartua, Azpeitia Nabarra (2010.4.14)

### **EUSKAL HERRIA/NAFAR ESTATUAREN EUSKAL ESKOLA NAZIONALA: IKASTOLA**

Euskal Herriak bere identitatea bermatzeko, Nafar Estatu bezala Europan genuen erabakimena, indar militarrez kendu zitzaigun, konkista eta okupazioa izan dugu, baina garenaren kontzientzia bizirik dugu hirugarren milurtekoan.

Gerra irabazleek idazten dute galtzaileen historia, bigarren aldiz galtzaile bihurtu nahian. Baina gure herriak memorian gorde du geure nortasuna. Geure memoriaren haritik historia jarraituz, Europari eta mundu osoari adierazteko aukera ematen digu, aldarrikatzen dugun estatua ez dela egoera berri bat, baizik eta historikoki izan dugun erabakimena errekonstruzioa dela. Europara begira, une honetan erabakietan partaide izateko, ez dagoela zertan estatua izan, estatuak direnak bakarrik defendatzen dute.

Euskal Herriak, herri guztiak bezalaxe, hezkuntza zerbitzua antolatu beharra dauka transmisioa eta garapenaren bitartez bere nortasuna bermatzeko lurralde osoan. Beste herrietan, estatuak betetzen du eginkizun hori; herri bakoitzaren nortasuna estatuak lantzen du egunero. Hezkuntza, nazio-identitatearen esparruan tratatzen hasteak suposatzen du Estatu planteamendua egin beharra norbere erabakiak bakarrik bermatzen duelako nortasuna. Bai gizabanakoarena eta baita herriarena ere.

Euskal Eskola Nazionalik gabe, euskal hedabiderik gabe, euskal erakunderik gabe, eta, hitz batean, euskal botererik gabe, herri bezala dagokigun nortasun kolektiboaren garapenik ez dugu eskuratuko.

Era berean, Estatua lortzen dugun bitartean, ikastola proiektuaren bermerako daukagun erabakimenaz baliatzea estrategikoa da. Eta horretan titular bezala konprometiturik dabilzaneei, aitortza, esker ona eta begirunea zor diegu.

Gogoan izan behar du herri honekin konprometiturik dagoen edonork, herri honi bere egitura politiko guztiak indarkeriaz kendu ondoren, herriak berak sortutako sarea dela ikastola, herriak bere osotasunean egitura politiko propioa eskuratzen duen bitartean euskalduntasunaren bermea eskutik eramanez.

**ESTATUEN SISTEMA OFIZIALEN SAREAK: PUBLIKO/PRIBATUA**

**HORIEN PARALELOA GEUREA: IKASTOLA**

Badago hainbat jende, hezkuntza sistema, gestio ikuspegi hutsetik begiratzeko joera duena, zerbitzu publiko baten definizio hutsean geldituz. Galdera da, non dago zerbitzu publiko

horren erabaki gunea? Estatuan. "Publikoa", estatuak edo bere oinordeko erakundeek, hark baimenduta erabakitakoa da.

Subiranoak diren herrietan, "bertakoa"rekin, "propioa"rekin, "guztion"arekin lotzen da. Ez ordea "pribatua"; hau, "batzuen" da, ez da "bertakoa", ez da "propioa". Baina herri bat okupatua dagoenean, gurea kasu, "publiko" terminoa ezin da lotu "bertako"arekin. Guztiz kontrakoa da, indarrez inposatutakoa da. Espainiaren eta Frantziaren sistemak "publikoa" eta "pribatua" biak ala biak, beraien identitatea lortzeko xedearekin egituratu dituzte.

Euskal Herrian ditugun hiru Administrazioak, auzoko bi Estatuena dira. Haien erabakimenean daude eta beraien identitateak bermatzea dute helburu, gurea ezabatzearekin batera. Horregatik, gure Estatu berreskuratzen ez dugun artean, gurea den guztia geure erabakimenean izan behar dugu. Geure eskutik.

Gaur egun, ikastola kontzeptua, "publikoa" eta "pribatua" hitzez laguntzeak, erabakitzeko eskubidea, hau da estatu egitura indarrez kendu zigutenean sare bihurtzea suposatzen du.

1993an, publikazioan, Autonomi Erkidegoa eta Euskal Herria berdinu ziren. CAV-eko Gobernu hezkuntza sistemaren bermatzaile azaltzen zen, Euskal Herri osoaren hezkuntza sistemaren bermatzaile gisa. Beraz, zertarako segi ikastolak aurrera ateratzen, Administrazioak berak hobeto bermatuko bai zuen etorkizuna? Zer nahi dute alderdi politiko abertzaleek euskal hezkuntzarekiko, arbola espainiarraren eta frantziarraren euskal adarra izatea? Hori da edozer publikazioak adierazten duena. Ala ikastola sortu zeneko helburuari eutsiz, euskal arbola izatea nahi dugu?.

Zenbaiten asmoa, estatu baimenarekin euren sisteman euskara sartzea da eta ikastolarena euskalduntasunari eskola egitea. Horregatik du Euskal Herriak bere eskola, ikastola eta hauek dira, bera beste guztietatik bereizten dutena:

Euskal identitatea (euskalduntasuna) xedetzat izatea, lurraldetasun osoa aintzakotzat hartzea eta proiektu horren bermerako, estatu propiorik ezean, familien titulartasuna erabakiarekin proiektua bermatzeko: Euskalduntasuna, lurraldetasuna eta titulartasuna.

## ESTATUEN ERABAKIZ GURE MAPA ETA LURRALDEA

Lurraldetasun osoaren ikuspegia galtzen ari denaren ebidentziak dauzkagu, Administrazioen kontrolaren eraginarekin. Erreferentzi indartsuak bilakatu dira gizartearentzat. Hiru Administrazioen lurralde esparruek, euskal lurralde osoaren ikuspegia lausotu digute. Haiek guretzat erabakitzen duten maparen arabera ulertzen al dugu gure lurraldetasuna?

Euskal Herriaren lurralde osoan euskalduntasunaren bermea estatuei aldarrikatuz lortu nahi al dugu? Gure herria okupatu, gure izatea ukatu, eta oraindik dagoena ezabatzeko helburua dutenei, publikoak direlako eskatuko diegu batera joan eta gure identitatea bermatzea?

Guk egiten duguna zerbitzu publiko kontsideratuta, beraien erabaki politikoaren menpe jarraituz, balioko digu gure giza-eskubideen kontzientzia bizirik izateko eta horren aurrean

erantzukizunez, subjektu bezala libre eta eragile jokatzeko? Euskal familiak, beraien seme-alabentzako hezkuntzako aukera egiterakoan lurralde osoan Administrazioek egiten duten “euskal hezkuntza” eta kalitatezkoaren aurrean, nola jabetuko dira zer den gure giza-eskubidea Euskal Herri bezala lurralde osoan?

Euskal Herriari betidanik duen Nafarroaren izen politikoa aitortzeak, planteatzen digu behar den bezala gaur egungo egituraketa nola egin, herri bezala etorkizuna edukiko badugu. Mapa asko inposatu dizkigute eta une honetan bertan gurea nola aldatzen duten, hedabideak eguraldia azaltzerakoan ere, nabarmena da. Administrazioen barrutiak hezkuntzan eta hedabideak orokorrean, politikarien jarrerak argi azaltzen dizkigute. Baina euskaldunok, lurraekin daukagun lotura eta horren bizipena, inposatutako mapak baino indartsuagoak direla demostratua dugu.

Mapa ez da lurraldea; kanpokoindarrak inposatzen digute mapa bat edo bestea; politikariek esplikatzeko digute komeni zaien erako errealitatea, baina barruan daramaguna, hau da, guk lurraekin daukagun lotura eta horren bizipena, hori errailetan sustraituta daukagu. Hor gauzatzen da gure identitatea.

#### LIBRE ETA ERAGILE, GURE NAHIA, EKINEZ EGINEZ

Esaerak ezina ekinez egina badio ere, nahia diot eta ez ezina, nahi izateak ematen digulako berebiziko indarrabizitzako esparru guztietan. Nahian azaleratzen ditugu, aukera bidez, genetikoki inertzia dakarzkigunak. Familiatik eta ingurutik genetikoki jasotakoak.

Gainera asimilazio prozesu luzeak jasaten ari den herriak, usteak ere inposatuak ditu. Bere memoria erreskatatzeko, bere duintasuna erreskatatzeko, historia ofizialetik at dauden ezkutuko ahotsei komeni da arreta ipintzea.

Egungo bilakaera zientifikoak dio, gure kulturak adierazten badigu ere bizitza guk pentsatzen duguna dela, errealitatean, bizitza sentitzen dugunaren arabera dabilela. Gure emozioak, mundua nola sentitzen dugun determinatzen dute, kontziente edo inkontzienteki.

Geure identitateaz ditugun usteak, kreentziak edo sinismenak funtsezkoak dira. Egin dezakeguna edo ezin duguna, posiblea ala ezinezkoa usten duguna, oso gutxitan oinarritzen da gure benetako gaitasunetan. Gehienetan, nor garen usten dugunaren arabera funtzionatzen dugu. Beraz, uste indartsuak aukeratu eta mugatzaileak alboratzea, oinarritzko erabakiak dira. Horrela argituko dugu zer nahi dugun.

Bide luzea hasterakoan, norberaren indar nagusienetan oinarritzea da inteligenteena. Horrek lagundu egiten du gainera, egindako okerren aurrean ere, errudun eta galtzaile sentitu beharrean, aukera egokiak egiten ikasteko jarrera hartu eta aldatuz, modu indartsuan aurrera egin, inorekiko menpekotasunik gabe.

Aerioengandik jasotako zailtasunak handiak izan arren, gure Herriak bizirik jarraitzen du, beraz galtzaile sentiarazi nahi gaituztenen aurrean, gure indarraren adierazle argia dela ikusi

genezake. Errealitate horren kontzientzia izateak ematen duen poza sentitzeak, indarra bihurtzen zaigu gelditzen den bidea egiteko.

Orain arte asmatu ez izanak erakusten diguna horixe da, egindako guztia errepikatu beharrik ez daukagula, ez duelako balio. Bonbillaren asmatzailea izan zen Edison-ek saio pila batetan ez asmatu arren, nola ez zen egin behar ikasi zuela zioen, eta etsi gabe aurrera egin zuelako lortzera iritsi zen. Guk ere modu asko erabili ditugu ez errepikatzekoak, eta jarraitu egingo dugu behar den denbora guztian nahi duguna lortu arte.

Zertarako ari garen garbi azaldu eta ingurua inspiratzen duten liderrak behar ditugu. Lurra den herri hori, ur berri horren egarri dago eta berehala emankorra bihurtuko da. Nahiaren SUa, ekinaren URa eta eginaren LURra, UF-arekin, arnasa, bihotza emanez etengabe. Biziaren lau elementuak.

Hori ikusi eta ikasi dut, arazoak arazo, ikastolari eutsi dioten jendearekin: "nahia, ekinez egina" eta umorez gainera.